

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Honako iragarki honen akatsen zuzenketa: 682 iragarkia, 2025eko martxoaren 12ko ALHAOn (29. zk.) argitaratua, 2025. urtean elkarteek, kirol klubek edo pertsona fisikoek egiten dituzten gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko ekimenak finantzatzeko udal laguntzen deialdiarena

Akatsak antzeman dira 2025eko martxoaren 12ko ALHAOn (29. zk.) argitaratutako 682 iragarkian, eta, horrenbestez, osorik argitaratzen da iragarki zuzendua:

Udalbatzak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, elkarteek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2025ean egiten dituzten gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko ekimenak finantzatzen laguntzeko oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Oinarriotan arautzen diren dirulaguntzen xedea da 2025. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerriantzat onuragarritzat jotzen direnak eta udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honako hauek aplikatuko zaizkie: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta haren arautegia (887/2006 Errege Dekretua, uztailearen 21ekoa), Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegia, Plan Estrategikoa eta, azkenik, dirulaguntzen udal ordenantza.

BIGARREN OINARRIA.- ONURADUNAK.

Honako hauek izan daitezke laguntza hauen onuradun:

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, programak eta jarduerak udalerrian soilik egiten dituztenak.

b) Udalerrian kokatuta ez egon arren, udalak ezarritako edo mugakide den jarduera eremu batean gauzatzen diren gizarte, kultura edo kirol programak egiten dituzten kirol elkarte eta klubak, gutxienez tokiko hiru bazkide edo gehiago badituzte.

2. Donemiliagako udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, baldin eta dirulaguntzaren ematea justifikatzen duten jarduerak egiten badituzte.

3. Nortasun juridikorik izan ez arren, udalerrian kide kopuru handia erroldatuta duten pertsona fisikoen taldeak, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin ditzaketenak, hain zuzen ere, udalaren jarduna osatzen duten eta udalerrirako herri eta gizarte interesekotzat jotzen diren proiektuak eta jarduerak.

HIRUGARREN OINARRIA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK.

Dirulaguntza jaso dezakete eskaera aurkezten den urtean udalerrian egiten diren irabazteko xederik gabeko jarduera programatuek, bai eta udalerrian bertan egin ez arren bigarren oinarrian adierazitako onuradunek gauzatzen dituzten programetako jarduerak ere, arlo hauetakoak izanez gero:

1. Gizarte eta kultura sustapena.

– Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi tailerrak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jarduera edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

– Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jarduera guztiak).

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

– Herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen duten berariazko jarduerak.

– Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

– Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jardueretako anoetarako eta behar bezala justifikatuta badaude.

– Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorak erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, aldez aurretik haren beharraren balorazio teknikoa eginda.

– Funtzionamendu gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erregaia...).

LAUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskaera orri bat (eredu ofizialaren arabera) programa edo jarduera bakoitzeko, elkar-tearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta. Eredua udal bulegoetan eskuratu ahal izango da, edo udalaren webgunetik jaitsi: www.donemiliaga.eus.

b) Eskatutako laguntza zerrendaren ziurtagiria, elkarteko idazkariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak egina. Beste organismo edo erakunde batzuei dirulaguntzaren bat eskatzen bazaie programa bererako, horien zerrenda aurkeztu behar da (I. eranskina).

c) Kirol klubek eta elkarteek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute (I. eranskina).

d) Jardueren edo programaren proiektua (I. eranskina); datu hauek zehaztu behar dira:

– Lortu nahi diren helburuak.

– Egingo diren jardueren deskribapena.

– Jarduerak non eta noiz egingo diren.

– Jarduera norentzat den eta onuradun kopurua.

– Dirulaguntzaren bidez egingo diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.

e) Egoitza udalerrian ez daukaten elkarte edo kirol klubek erregistroan izena eman dutela egiaztatuta behar dute, eta udalerrian bizi diren bazkideen frogagiriak aurkeztu.

Eskaera batek ez baditu betetzen adierazitako baldintzak, Donemiliagako Udalak interesdunari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko hamabost egun pasatu baino lehen. Epe horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da eta eskaera artxibatuko da.

BOSGARREN OINARRIA.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Eskaerak Donemiliagako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira.

Eskaerak eta laugarren oinarrian adierazitako agiriak 2025eko uztailaren 28rako aurkeztu behar dira, beranduenik jota.

SEIGARREN OINARRIA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

1. Irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan dirulaguntzak emateko eta zenbatekoak zehazteko:

a) Lehentasuna izango dute udalerrian bertan egiten diren jarduerak.

b) Dirulaguntzarik gabe gauzatzen zailak izango liratekeen jarduerak.

c) Jardueraren interes orokorra.

d) Aplikazio eremua: jardueran zenbat udalerriko zenbat herri dauden sartuta edo zenbat herri diren jardueraren onuradun.

e) Donemiliagako udalerriko onuradunen eta parte hartzen duten kolektiboen kopurua.

f) Programaren kostuaren eta erakunde eskatzaileak bere gain hartzen duen zatiaren arteko erlazioa.

g) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko jarduerak.

2. Irizpide berezi hauek hartuko dira kontuan irabazteko xederik gabeko elkarte eta kirol klubentzako laguntzen zenbatekoa ezartzeko:

– Udalerrian egoitza eta jardun eremua duten kirol elkarte edo klubek egiten dituzten jarduerak, gehienez ere, eta aurkezten diren eskaeren arabera, defizitaren ehuneko 100eko dirulaguntza jasoko dute, 850 euroko mugarekin, edozein dela ere aurkezten dituzten programen edo jardueren bolumena, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Laguntzaren ehunekoa zehazteko, lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutako pertsonen kopuruari.

– Egoitza udalerrian duten eta udalerrian jarduten duten kirol klubek eta elkarteek udalerritik kanpo egiten dituzten jarduerak defizitaren ehuneko 80ko dirulaguntza jasoko dute, gehienez, eta aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 400 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Laguntzaren ehunekoa zehazteko, lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutako pertsonen kopuruari.

– Udalerrian kokatuta ez dauden kirol elkarteek eta klubek egiten dituzten jarduerak, defizitaren ehuneko 80ko dirulaguntza jasoko dute, gehienez, eta aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 400 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Dirulaguntzaren ehunekoa zehaztean, lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutakoen kopuruari.

3. Irizpide berezi hauek aplikatu zaizkie pertsona fisikoei edo nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeei:

- Aurreko apartatuetako irizpide berak aplikatuko dira.
- Hainbat pertsona fisikok banakako laguntza eskatzen badute jarduera programa bererako, laguntza bakarra emango da.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- AURREKONTUKO ZUZKIDURA.

Dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauen kontura emango dira: 231.481.000 partidatik (Erretiratuen elkarteak) 2.672,25 euro; 334.482.000 partidatik (Kulturako dirulaguntzak) 1.710,00 euro; 341.482.002 partidatik (Kirol jardueretarako dirulaguntzak) 4.810,00 euro.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta indarreko urtean baino ez dira aplikatuko. Ezin izango da arrazoitzat eman aurrekoan jaso izana eta ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA.

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskuratzen dituzten beste batzuekin. Dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin da izan onuradunek egin nahi duten jardueraren edo programen kostua baino handiagoa.

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzabidea zein den eta beste laguntza edo diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan hau izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa: diru sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

BEDERATZIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA.

Gizarte eta kultura zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea; ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak.

Donemiliagako Udaleko alkateak du eskumena dirulaguntzak emateko, Informazio Batzorde Orokorra proposamena egin ondoren.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, frogagiriak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekurtsoak. Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42,43. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da ebazpen hori.

HAMARGARREN OINARRIA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

- a) Diruz lagundutako jarduerak ematen diren urteko abenduaren 31 baino lehen egin behar dira.
- b) Onuradunek, gastuak frogatzeaz gainera, jardueraren memoria xehatua eta gastuen eta diru sarreraren balantze ekonomikoa aurkeztu behar dituzte.
- c) Ezin da emandako dirulaguntzaren xedea aldatu, udalak baimena eman ezean.
- d) Jardueraren publizitatean hau agertu behar da idatzita: "Donemiliagako Udalaren laguntzarekin / Con la colaboración del Ayuntamiento de San Millán".
- e) Onuradunek publizitatea eta komunikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin behar dituzte.

f) Diruz lagundutako programak, proiektuak edo jarduerak sustatzeko egiten diren dokumentu, material, kartel eta testuetako edukietan ezin da hizkuntza eta irudi sexistarik erabili. Emakumeak eta LGTBI kolektiboa diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihesti behar da, eta balio berdintzaileak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero identitateen pluraltasuna sustatu.

g) Elkarteen jardueretan genero indarkeria eta mikromatxismoak prebenitu behar dira.

h) Donemiliagako Udaleko organoek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudunek eskatzen dituzten argibide guztiak eman beharko dira.

i) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak betetzea.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

Dirulaguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko da.

HAMAİKAGARREN OINARRIA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

Donemiliagako Udaleko Euskararen Erabilera Plana plan estrategiko bat da, hizkuntza normalizazioan aurrera egiteko helburua duena; azken batean, oinarrizko tresna da garatu beharreko helburuak eta estrategiak zehazteko, udalerrriaren lehentasunak eta beharrak kontuan hartuta. Laburbilduz, euskararen erabilera normalizatzeko euskararen aldeko ekintzak egokitu eta proposatzea du xede.

Planean jasotako helburuak kontuan hartuta, hizkuntza irizpide hauek bete behar dira:

1. Jardueren zabalkundea (kartelak, liburuxkak, gutunak...) euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da.

2. Gaztelaniarekin batera, euskara erabili behar da ekitaldietan: aurkezpenetan, megafonian, ekintzetan, jardueretan...

3. Egitarauaren barruan euskarazko jardueren antolaketa bultzatu behar da.

4. 16 urtetik beherakoentzako jardueretako begiraleak euskaldunak izan behar dira eta beti euskaraz aritu behar dute. Bi kasutan egingo da salbuespena: begirale euskaldunik topatzen ez bada edo urte asko lanean aritu diren begiraleak badira.

5. Udalak arreta handiarekin egiaztatuko du hizkuntza irizpideak betetzen direla. Irizpide horiek bete ezean, behar diren neurriak ezarriko dira.

HAMABIGARREN OINARRIA.- BERDINTASUN IRIZPIDEAK.

Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren helburu nagusia da emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea, baliabideak eta zaintzak pertsonen artean modu ekitatiboan banatzea, eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzea. Plan hori oinarrizko tresna da, udalerrriaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Planean adierazitako helburuak lortzen direla egiaztatzeko, genero ikuspegia kontuan hartu behar da aurkezten diren programa eta jarduerak egitearen ondorioz sortzen diren agiri guztietan. Horiek horrela, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, irizpide hauek bete behar dira:

- Hartzaileen datuak genero nortasunaren arabera (emakume/gizon/beste batzuk) bereizita aurkeztu behar dira, bai aurkeztutako proiektuan, bai haren justifikazioan.

- Proposamenean argi zehaztu behar da emakumeengan duen eragina. Saihestu egin behar da emakumeentzako zernahi eragin kaltegarri eta, hala behar izango balitz, aurreikusi egin beharko dira eragin hori ezerezteko neurriak.

- Proiektuan edo haren harira gauzatzen diren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatu behar da.

- Proiektuak zehaztuta izan behar ditu genero emaitza batzuk, nahiz eta gutxi izan.
- Dirulaguntza jasotzen duen organoak dirulaguntzan inplikaturako langileen berdintasunari buruzko prestakuntza sustatu behar du, udalak edo kuadrillak urtean zehar antolatzen dituen edo beste erakunde batzuek ofizialki eskaintzen dituzten ikastaroen eta/edo tailerren bitartez.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 puntuak betetzen direla egiaztatzeko, komenigarria da langile guztiak berdintasunean trebatzea Donemiliagako Udalak eta kuadrillak urtean zehar antolatzen dituzten ikastaroen eta lantegien bidez. Hona hemen ikastaro eta lantegi horien helburuak:

- a. Estatutuak aldatzea, genero ikuspegia jaso dezaten.
- b. Paritarioak ez diren zuzendaritza batzordeak aldatzea.
- c. Elkarteen jardueretan indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea.
- d. Berdintasunaren arloan langileen eskarmentua egiaztatzea.
- e. Ekintza guztietan genero ikuspegia txerta dadin, komenigarria da udalaren Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jartzea.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA, GASTUAK JUSTIFIKATZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

Jarduera amaitu ondoren, dirulaguntza jasotzen duen programa edo jarduera justifikatu beharko da. Horretarako epea 2026ko urtarrilaren 7an amaituko da.

Ez justifikatzearen ondorioak; justifikazio dokumentazioa 15 eguneko epean aurkezteko eskatuko zaio onuradunari. Dokumentazioa aurkezten ez badu, ordainketa kredituak baliogabetuko dira eta aurreratutako kopuruak itzultzeko eskatuko zaio, horrelakorik izanez gero.

Jarduera justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Justifikazio orria, eredu ofizialaren arabera, programa edo jarduera bakoitzeko, elkarrearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta. Eredua udal bulegoetan eskuratu ahal izango da, edo udalaren webgunetik jaitsi: www.donemiliaga.eus.

b) Egindako jarduerak eta horien emaitzak jasotzen dituen memoria.

c) Egindako gastuari dagozkion fakturak edo justifikazio kontu erraztua, III. eranskinean jasotakoaren arabera (bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 75. artikuluan ezarritakoarekin).

Laguntzak edo dirulaguntzak ordainduko dira frogagiriak aurkeztu eta dirulaguntza emateko guztizko zenbatekoa baloratu ondoren.

Nolanahi ere, dirulaguntza honela ordaindu ahal izango da:

– Urteko programetan alde aurretik ordaindu ahal izango da dirulaguntzaren ehuneko 50, gehienez.

– Ezohiko programetan eta unean uneko jardueretan, jarduera justifikatu eta memoria aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza, behin dirulaguntza emateko ebazpena emandakoan.

– Baldin eta dirulaguntza ezinbesteko finantzaketa bada jarduera egin ahal izateko, dirulaguntza aurrez ordaindu ahal izango da, aurreko oinarrian ezarritakoaren arabera onuradunak aurkeztu beharreko justifikazioa aurkeztu baino lehen.

Frogagiriak ez badatoz bat deialdi honetako irizpideekin, irizpideen arabera justifikaturako kopurua besterik ez da ordainduko; gainera, gerta liteke dirulaguntza baliogabetzea ere.

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, dirulaguntza errebotatu ahal izango da.

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzan araututakoaren arabera izango da.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki irizitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

Donemiliagako Udalak datuak benetakoak direla egiazta dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, elkarte onuradunek hitzeman behar dute egingo dituzten programa eta jardueren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

HAMALAGARREN OINARRIA.- DIRULAGUNTZA GALTZEA.

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, emandako dirulaguntzaren zati bat edo guztia galdu ahal izango da.

HAMABOSGARREN OINARRIA.- INTERPRETAZIOA.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

Hauek dira aplikatu beharreko oinarrizko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

HAMASEIGARREN OINARRIA.- ERREKURTSOAK.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren esanbidezko ebazpen edo presuntziozkoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Erdoña, 2025eko martxoaren 12a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO

**DONEMILIAGAKO
UDALA**
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN**
(ALAVA)

**KULTUR, KIROL EDO ETA GIZARTE PROGRAMENTZAKO
DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEA/**

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

Elkartea		IFK – NAN
Arduraduna		NAN
Elkartearen erregistro zenbakia eta data		
Bazkide edo kirolkideak		
Kontu zenbakia		
Kalea	Zk	Solairua Herria
Posta-Kodea	Udalerria	Lurraldea
e-posta	Telefono zk.	Sakelakoaren zk.
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik		
<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ		

DEKLARATZEN DUT

- Betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela.
 Entitateak ez du soldatapeko langilerik.
 Entitateak soldatapeko langilerik badu.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA

- Estatutuen fotokopia, eta Eusko Jurlaritzaren Elkarte eta Erakundeen Erregistroan legez eraturta eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Dokumentazioa aurretik aurkeztua duten erakundeek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, aldaketaren bat izan dutenek eta menpeko toki erakundeak direnek salbu
 Besteak:

Sinadura

Izena:
Kargu:
NAN:

**DONEMILIAGAKO
UDALA**
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN**
(ALAVA)

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE

Aurrez aurre: Udalean
Andia Kalea, 9 – Ordoñana
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara

Postaz: Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan

Helbide elektronikoa: asanmillan.general@ayto.araba.eus

Informazio gehiagorako, deitu: 945 300472
www.donemiliaga.eus

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Donemiliagako Udala (IFK: P0105900E)
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	Andia Kalea, 9 01208 Erdoñana, Araba 945 300 472 – dpo-dbo.sanmillan@ayto.araba.eus
Tratamenduaren xedeak	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	ADBAOko 6. artikulua.
Hartzaileak	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Donemiliagako Udalaren eta datuhartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere.
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)**I ERANSKINA****Nik,**.....**JAUNAK / ANDREAK,****NAN:****ORDEZKATZEN DUDAN ERAKUNDEA:****ADIERAZTEN DUT:**

- Ordezkatzen dudan erakundeak diru-laguntzen Lege Orokorren 13 artikuluan arrekusten diren diru-laguntzen onuraduna izateko ez daukala inolako debekurik.

- Dagozkion zerga guztiak ordaindu dituela eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala inolako zorrik.

- Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan aldaketak emanez gero, erakundeari jakinarazteko konpromezua bere gain hartzen duela

- Donemiliagako Udalari baimena ematen dio zergak ordaindu dituela eta Gizarte Segurantzarekin zorrak ez dituela baieztatzen duen ziurtagiria dagokion tokian eskatzeko.

- MARKATU:

Beste erakunde publiko zein pribatuei dirulaguntzarik eskatu ez izana egiaztatzen dut.

Beste erakundeei eskatutako diru-laguntzakeurokoak izan direla egiaztatzen dut. (Zein erakundeak izan diren izendatu).

Erdoñana, 20.....(e) koaren..... a

SINADURA

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)

II ERANSKINA: JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Eskabidea igortzen zaion saila::

Kultura Kirola

EGITASMOA

DATAK

KOKAPENA

HARTZAILEAK

Herritar Guztiak Haurrak Gazteak Helduak Hirugarren Adinekoak
(Jarri x bat jardueraren hartzaileak zein diren azaltzeko)

ZEIN HERRITAN

BURUTU DIREN EKINTZAK

(Jarduera-programa bat diruz laguntzeko eskatu nahi bada, jarduera guzti-guztiak aipatu behar dira)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)**AURREKONTUA**

GASTUEN ZERRENDA:

KONTZEPTUA	AURREIKUSITAKO GASTUA
GUZTIRA	

DIRU- SARRERAREN ZERRENDA: Erakunde publikoak zein pribatuak aipatu behar dira (aldundia, Eusko Jauriaritza, bankuak, saltokiak, bazkide kuotak, eta abar)

KONTZEPTUA	AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK
GUZTIRA	

DEFIZITA